

VILLARREK EKAINAREN 8AN EUSKO JAURLARITZAREN AURKA EGIN ADIERAZPENENGATIK JARRIKO DUTE KEREILA

Eusko Jaurlaritzak kereila kriminala aurkeztuko du Enrique Villarren aurka

■ Jaurlaritzak «hiltzaileak laguntzen» dituela esan zuen Villarrek, eta segurtasunari buruzko datuak ezkutatu zizkietela onartu

■ Espainiako Gobernuko ordezkariak «prebarikazio eta kalumnia delituak» egin dituela uste du Eusko Jaurlaritzak

■ «Jendaurrean salatzea ez da nahikoa eta Enrique Villarren jokabidea epaitegian epaitu behar da», adierazi du Zenarruzabeitiak

Edurne Begiristain / Gasteiz

EUSKO JAURLARITZAK atzoko gobernu bileran erabaki zuenez, kereila kriminala aurkeztuko du Enrique Villar Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren kontra. Izan ere, Jaurlaritzaren ustez, Enrique Villarrek «prebarikazio eta kalumnia delituak» egin ditu.

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak atzo Gasteizen jakinarazi zuenez, balizko delitu horiek Espainiako Gobernuaren ordezkariak ekainaren 8an egin zituen, adierazpen publiko batzuetan. Jaurlaritzaren ustez, «hori jendaurrean salatzea ez da nahikoa eta, hortaz, Villarren jokabidea epaitegian epaitu behar dute, berme guztiekin».

Prebarikazio eta kalumnia delituak

Ekainaren 8an Villarrek CNN+ telebista katean eskainitako elkarrizketa batean onartu zuen Espainiako Gobernuko Barne Ministerioak ETAko kideei atzemandako informazio eta datuak ezkutatu zizkiola Eusko Jaurlaritzari. Villarrek CNN+ telebistan honako hitz hauek esan zituen: «Egin behar bagenu ere, guretzat zaila da jarraitzen ditugun hiltzaileei babesa ematen dien Gobernuari hainbat datu ematea».

Idoia Zenarruzabeitiak atzo azaldu zuenez, «deklarazio horiek erakusten dute Villar jaunak onartzen duela Barne Ministerioak ekintzak eta omisioak egiten dituela, nahiz eta jakin badakien araudi juridikoaren, Estatuaren zein Konstituzioaren arabera EAEk segurtasun arloan dituen konpetentziek informazio hori ematera behartzen duten». Gauzak horrela, lehendakariordeak esan zuenez, Villarren jokabide hori «prebarikazio delitua izan daiteke, eta, ondorioz, kode penalean sar dai-



PEDRO VALBUENA / EFE

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordea, atzo kereila azaltzeko eginiko agerraldian.

IDOIA ZENARRUZABEITIA

■ ■ ■ «EAEko pertsonen segurtasuna bermatzeko ardura Eusko Jaurlaritzak du, eta Barne Ministerioak, era interesatuan, informazioa ezkutatu dio»

teke». Horretaz gainera, jokabide horrek Estatutua ez dutela betetzen esan nahi duela azaldu zuen.

Eusko Jaurlaritzaren irudiko, arazo hori «oso larria»

da. «EAEko pertsonen segurtasuna bermatzeko ardura Eusko Jaurlaritzak du, eta Madrilgo Barne Ministerioak, era interesatuan, garrantziko informazioa ezkutatu dio,

eta Jaurlaritzari bere eginkizunak eraginkortasunez egitea eragotzi dio», esan du Eusko Jaurlaritzak. Era berean, Jaurlaritzaren ustez, Espainiako Gobernuko ordezkariak baliteke kalumnia delitua egin izana.

Villarrek atzo bertan erantzun zuenez, «okerra» da Jaurlaritzak hartu duen erabakia. Polemika piztu duten adierazpen haiek egin zituztean, hizkuntza «erabat politikoa» erabili zuela esan zuen Madrilgo ordezkariak.

Biktimentzako diru laguntza handitu du

E.B. / Gasteiz
«TERRORISMOAREN biktimiek» jasotzen duten laguntza handitzeko dekretua onartu zuen atzo Eusko Jaurlaritzak. Dekretu horren bitartez, biktimiek jasotzen dituen diru laguntza handitu eta bestelako beharrei aurre egiteko laguntzak zabaltzen dira. Hain justu, aurtengo aurrekontuetatik 30 milioi pezeta bideratuko dira biktimak laguntzeko

(milioi bat libera baino gehiago).

Dekretuaren bidez, azken urteetan atzeman dituen «beharrei» erantzun nahi diela dio Jaurlaritzak. Hala, kalte materialei dagokienez, orain artean pertsona batek jasotzen zituen 7 milioi pezetatik 10 milioira igo da. Bestalde, kalte pertsonalak ere kontuan hartuko dira aurrerantzean, orain arte ez bezala. Aurreko dekretua

1995ean jarri zen indarrean eta, Jaurlaritzaren ustez, «bere garaian ezinbestekoa izan zen Laguntza Programa martxan jartzeko». Aitzitik, dekretu hori gaur egun «zaharkituta zegoen, bai lege-diaren garapenagatik, bai Terrorismoaren Biktimei laguntzeko programaren prebisioak eraginkortasun handiagoz bete nahi zirelako», Jaurlaritzak atzo adierazi zuenez.

erreakzioak

Begoña Lasagabaster
Eako diputatua

«Espainiako Gobernuak esan behar du Villarren esanekin ados al dagoen»

► Begoña Lasagabasterrek Espainiako Gobernuari galdetu dio ea Enrique Villarrek egin adierazpenekin bat egiten duen. Hala ere, Aznarren gobernuari galdegin dio azal dezala Estatuko zein lege organikok ahalbidetzen dion Villarri erabakitzea zein informazio eman diezaiotkeen Barne Ministerioak Jaurlaritzari.

Jaime Mayor Oreja
Espainiako Barne ministroa

«EAJ aurkariz erratu da berriz, ETAk eta HBk merezi baitute kereila»

► Mayor Orejaren ustez, «EAJ berriz erratu da, ETAren eta HBren aurka jarri beharko lukeelako kereila kriminala, eta ez Villarren aurka». Orejak esan duenez, «arreta gehiago jarri behar dute itunak dituzten alderdi politikoei egiten dituzten salaketa eta mehatxuetan». Bestalde, Carmelo Barrio, EAEko PPKo idazkari nagusiak Villarri babesa adierazi dio, eta Jaurlaritzaren erabakia «arduragabekeria eta okerra» dela esan du.

Ramon Jauregi
PSOEren bozeramailea

«EAJk eta PPK tentsioa gutxitu eta elkarlanean aritu behar dute»

► Ramon Jauregi PPrri eta EAJri eskatu die «tentsioa gutxitzeko eta elkar ulertzea eta elkarlana gehiago bultzatzeko». Jauregi galdetu dio ea kereilak esan nahi duen Balzak eta Orejak bileran ez zutela elkar ulertu eta koordinatu.